

## **AISIA, ZER DERITZOGU KALITATEARI?**

### **Aisi eskaintzaren kalitatea: Ikuspegi dinamiko bat**

#### **1. Kalitatea**

Interneten "Kalitate" berba sartu eta "Euskolabela", "Euskalit", "Kudeaketaren kalitatea" eta horrelako web guneak datozkigu pantailara. Kalitatea *management teknika* berriekin, *Erabateko Kalitatearekin* edo *kudeaketarekin* lotzen da gero eta gehiago. Eremu profesional berri hauek hizkera arruntari "kalitate" hitza lapurtu eta honen erabilera ia monopolizatu egin dute. Gaur egun kalitatea ez da sen onak dioskuna, EFQM eta antzerako kalitate ereduak diotena baizik.

Berrikitan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskalit Fundazioak hitzarmen bat sinatu dute enpresek euskararen alde ematen dituzten urratsak ziurtagiri baten bidez aintzatetsi eta egiaztatzeko. Hitzarmen hau sinatu denetik aurrera enpresetan euskararen erabilera bultzatzea kalitate seinalea izango da. Askorentzat euskararen aldeko lana betidanik izan da kalitate ikurra, baina orain, zelanbait esateko, ofiziala da.

Aisialdiaren kalitatearekin antzera gerta liteke. Bien bitartean, oraindino aisialdi eskaintzaren kalitatea neurtzeko holako eredurik ez daukagunez sen onari eta gure eskarmentuari kasu egin beste erremediorik ez dago.

#### **2. Aisialdia administrazioaren ikuspuntutik**

Lehenengo eta behin aisialdia zer den definitzea komeni da. Honetarako, Josep M<sup>a</sup> Puig Rovira eta Jaume Trillas egileek *La pedagogía del ocio* lanean emandako definizioa hartuko dugu haintzat. Hauen esanetan, aisialdiak, aisialdi izateko, bi baldintza bete behar ditu. Batetik, lanetik edo antzeko beharretatik (ikasketak esaterako) liberatutako denbora izatea eta, bestetik, erabaki askea eta gozamena. Horrexegatik aisialdia eta denbora libreza ez dira berdinak.

Erantzun behar den hurrengo galdera hau da: Administrazioak, edo zehazkiago esanda, Tokiko Administrazioak honela definitutako edozein aisialdi jarduera bultzatu behar al luke? Erantzuna ezezkoa da. Izan ere, administrazioaren egitekoa izaera hezigarria duen aisialdi eskaintza bultzatzea izan behar da, hau da, gutxienez honako baldintzetako bat betetzen duena:

- Norberaren prestakuntza handitzea (jakintza arloren batean ezagutza handitzea ahalbidetzen duena)
- Gizarte trebeziak garatzea laguntzea
- Irizpidedun pertsona izatea laguntzea
- Norberaren nortasunaren garapenerako aberasgarria izatea

Hauetatik aparte, Tokiko Administrazioak honako beste baldintza hauek betetzen dituen aisialdi eskaintza bultzatu beharko luke:

- Hizkuntza normalkuntza
- Integrazioa
- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna

### 3. Bi ikuspuntu kalitatea aztertzeko

Kalitatearen arazoa bi ikuspuntutatik azter daiteke: ikuspuntu "estatikoa" eta ikuspuntu "dinamikoa".

Ikuspuntu estatiko batetik aztertuz gero aisialdi jardueraren beraren kalitateari erreparatuko genioke. Ikuspuntu honen arabera, beraz, honako hauek aztertuko genituzke:

- Erabilitako bitartekoak: jarduera gauzatzen ari den inguruaren egokitasuna, material didaktikoak, azpiegitura teknikoa...
- Profesionalen prestakuntzaren egokitasuna
- Erabilitako metodologia
- Gazteek dituzten behar desberdinak kontuan hartzea (zehar lerroak): hizkuntza normalkuntza, integrazioa eta aukera berdintasuna.

Ikuspuntu dinamiko batetik aztertuz gero, berriz, jarduera bera ezezik, aisialdi jardueraren aurrekoa eta aisialdi jardueraren ondorengoa ere interesatzen zaigu. Hartara, aisialdi jarduera ekintza soila baino gehiago ondorengo faseek osatutako prozesua da:

- Beharren diagnostikoa
- Diagnostikoaren emaitzetan oinarritutako aisialdi eskaintzaren diseinua
- Komunikazioa eta publizitatea
- Aisialdi ekintza
- Ebaluazioa eta prozesuaren berrelkadura

#### 3.1. Beharren diagnostikoa

Baliabideak mugatuak direnean (hau da, ia beti) diagnostikoak lehenetsuen hurrenkera finkatzen lagundu behar du. Herri jakin batean aisialdi hezigarriaren arloan dauden hutsuneak zeintzuk diren zehaztu beharko da. Honako galdera hauei erantzun behar zaie: zein da herri honetako aisi hezigarri eskaintza?, zenbat gaztek dute eskuragarri?, zeintzuk dira aisialdi hezigarri eskaintza horren adin tarteak?... Honi erantzunez gero zera jakingo dugu: zer ez da eskaintzen?, nork ez dauka aisialdi eskaintza hori eskuragarri?, zein edo zeintzuk dira lehenetsi behar diren adin tarteak?

#### 3.2. Diagnostikoaren emaitzetan oinarritutako aisialdi eskaintzaren diseinua

Behin diagnostikoa eginez gero emaitzetan oinarritutako aisialdi eskaintzaren diseinuari ekin behar zaio. Diagnostikoan planteatutako galderari erantzunetik markatutako digute planifikazioan jarritu beharreko bidea.

Aisialdi eskaintza hezigarria izateko irizpideak ez ezik diseinuak hizkuntza normalkuntza, integrazio eta aukera berdintasun irizpideak ere kontuan hartu behar ditu kalitatezkoa izan nahi badu.

### **3.3. Komunikazioa eta publizitatea**

Aisialdi eskaintzarik onenean xahututako dirua alferrik galduko da behar bezala komunikatzen ez bada. Komunikazio estrategia egokiak honako baldintza hauek kontuan hartu behar ditu:

- Erabilitako bitartekoak (flayerrak, kartelak, Internet, komunikabide idatziak...) aisialdi eskaintzaren hartzailleak izango diren gazteen profilerako egokiak izan behar dira.
- Publizitateak eskaintzari buruzko informazio zehatza emateaz gain motibagarria izan behar du, erakargarria eta originala.
- Publizitatean ere hizkuntza normalkuntza, integrazio eta aukera berdintasun irizpideak ere kontuan hartu behar dira, bai diseinuan, baita zabalkundean ere.
  - Hizkuntza normalkuntza. Hartzaillearen hizkuntza-profilera egokitua.
  - Aukera berdintasuna: irudiaren eta lengiaien erabilera ez sexista.
  - Integrazioa. Aisialdi eskaintza eskuragarri ez duten gazteengana eskaintza helarazteko neurriak hartu (zailtasun fisiko nahiz psikikoak dituzten gazteak, arrisku adierazleak agertzen dituzten gazteak...)

### **3.4. Aisialdi ekintza**

Lehen adierazi den moduan, aisialdi eskaintzaren kalitatea bermatuko bada, oro har, honakoak kontuan hartu behar dira:

- Erabilitako bitartekoak: jarduera gauzatzen ari den inguruaren egokitasuna, material didaktikoak, azpiegitura teknikoak...
- Profesionalen prestakuntzaren egokitasuna
- Erabilitako metodologia
- Gazteek dituzten behar desberdinak kontuan hartzea (zehar lerroak): hizkuntza normalkuntza, integrazioa eta aukera berdintasuna.

### **3.5. Ebaluazioa eta prozesuaren berrelikadura**

Ebaluazioa edozein aisialdi eskaintzaren prozesuaren azken urratsa izan beharko litzateke beti, prozesutik ikasteko eta etengabe hobetzeko (emaitzen ebaluazioa). Ebaluazioa diseinuan bertan hasten da. Izan ere, aisialdi eskaintzaren helburuak finkatzearekin batera, ahal dela, helburuok neurtzeko adierazleak ere sortu behar dira ebaluazioaren fasean horietan neurtzeko.

Oso garrantzitsua da helburuak eta ekintzak ondo lerrokatuta egotea eta, aldi berean, ekintzen eraginkortasuna neurtzeko adierazle egokiak erabitzea, horixe baita ebaluazioa hasiera bateko helburuekin lotzeko modu bakarra.

Aldi berean, ebaluatu nahi dena denboran zehar luzatzen bada monitorizazioa oso tresna egokia izan daiteke sortu litezkeen arazoak bidean konpondu ahal izateko (prozesuaren ebaluazioa).

#### **4. Konklusio gisa**

Tokiko Administrazioan lanean ari denarentzat aisialdi eskaintzaren kalitatea ezarritako helburuekin zuzenean lotuta dago. Helburu hezigarririk ez badago kalitatearen neurketak edukirik ez duen "prozesu huts" baten gaineko informazioa besterik ez digu emango: prozedura egokiak baina helburu desegokiak. Ildo honetatik, helburuak ere "kalitatezkoak" izan behar dira.